



ABANDOKO
SAN BIZENTE MARTIRIAREN
PARROKIA

PARROQUIA
DE SAN VICENTE MÁRTIR
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)
T. 94 423 12 96
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Niregandik urrun du bihotza”

2024ko irailaren 1a
Urteko 22. igandea (B)

Markos 7, 1-8. 14-15. 21-23.

Behin batean, fariseuak eta Jerusalemdik etorritako zenbait lege-maisu hurbildu zitzaizkion Jesusi, eta konturatu ziren, honen ikasle batzuek otordua esku kutsatuekin egiten zutela, esku-garbiguntza egin gabe, alegia. Izan ere, fariseuek, eta juduek oro har, ez dute behin ere jaten lehenbizi eskuak arretaz garbitu gabe, zaharren ohiturari tinko eutsiz. Azokatik etxeratzean ere, ez dute jaten garbiguntza egin gabe; eta badute beste hamaika ohiturazko betebeharrak: hala nola edalontzi, pitxer eta suilen garbigoketa.

Horrela bada, galdera hau egin zioten fariseuek eta lege-maisuek Jesusi: -Zergatik ez dute zure ikasleek zaharren ohiturari dagokionez jokatzen? Nolatan jaten dute esku kutsatuekin?

Jesusek erantzun zien: -Itxurazaleok halakook! Ederki asko esan zuen zuetaz Isaias profetak, honako hau idatzi zuenean: *Herri honek ezpainez ohoratzen nau, baina niregandik urrun du bihotza; alferrik naute gurtzen; hauen irakaspena giza agindu hutsa.*

“Zuek, Jainkoaren agindua bazterreratu utzi eta giza ohiturari eusten diozue”. Jesusek berriro jendeari dei egin eta esan zion: “Entzun niri denok eta ulertu ongi! Ez da deus ere, kanpotik gizakiaren barrura sartuz, hau kutsa dezakeenik; barrutik ateratzen zaionak, horrek kutsatzen du gizakia”.

Izan ere, barrutik, gizakiaren bihotzetik, ateratzen dira asmo txarrak, lizunkeria, lapurreta, hilketak, adulterioak, diru-gosea, gaiztakeriak, maltzurkeria, lasakeria, bekaizkeria, irainak, harrokeria, burugabekeria. Gaiztakeria guztiok barrutik irteten dira, eta hauek dute gizakia kutsatzen.

“Herri honek ezpainez ohoratzen nau, baina niregandik urrun du bihotza; alferrik naute gurtzen; hauen irakaspena giza agindu hutsa”.

EZ LOTU ITXUKI GIZA TRADIZIOEI

Jose Antonio Pagola

Ez dakigu ez non ez noiz gertatu zen liskar hau. Jesusek bizi duen giroa soilik iradoki nahi du ebanjelariak: lege-maisuek, tradizioen betetzailerak estu diren horiek, maitasunaren Profeta den Jesusek beren bizitzan sarrarazi nahi lukeen berritasunari itsuki uko egiten dioten horiek inguraturik bizi duen giroa.

Fariseuek haserre begi-ematen dute nola ari diren jaten Jesusen ikasleak esku lohiekin. Ezin jasan dute: «zergatik ez zaizkie lotzen zure ikasleak arbasoen tradizioei?» Ikasleek mintzo badira ere, Jesusi berari eraso diote. Eta arrazoi dute. Jesus da tradizio horiekiko obediencia itsua hausten ari dena; izan ere, bere inguruan «askatasun-eremu bat» ari da sortzen, non funtsezkoa maitasuna izango baita.

Erligio-maisuen talde horrek ez du ezer ulertu Jesus aldarrikatzen ari zaion Jainkoaren erreinuaz. Horien bihotzean ez da errege Jainkoa. Legeak, arauak, tradizioek markaturiko ohiturek eta hazkunderik jarraitzen dute errege horien baitan. Horientzat, «arbasoek» ezarria betetzea da funtsezkoa. Ez zaie axola jendearen ona. Ez zaie axola «Jainkoaren erreinua eta haren zuzentasuna bilatzea».

Larria da okerra. Horregatik, gogor erantzun die Jesusek: «Jainkoaren agindua baztertu duzue, giza tradizioari itsuki lotzeko». Lege-maisuak begirunez mintzo dira «arbasoen tradizioaz», eta jainkozko aginpidea aitortzen diote. Jesusek, aldiz, «giza tradizioetatik» hartu du. Ez da nahastu behar sekula Jainkoaren nahia gizakien fruitu den zerbaitekin.

Gaur ere oker larria izango litzateke Eliza gure aurrekoen giza tradizioen preso gelditzea, gauza guztiak Jesu Kristogana, geure Maisu eta Jaun bakarragana, sakonki itzultzeaz ari zaizkigun bitartean. Ardurazkoa ez dugu izan behar iragana bere hartan gordetzea, baizik honetarako gai izango liratekeen Eliza eta kristau-elkarteak sorrarazteko bideak egiten saiatzea: egungo gizartean Ebanjelioa leial berregiteko eta Jainkoaren erreinuaren egitasmoa eguneratzeko gai izango liratekeenak.

Gure erantzukizun nagusia ez da iragana errepikatzea, baizik gure egunotan posible bihurtzea Jesu Kristo onartze hori, giza tradizioen bidez, beneragarriena izanik ere, ezkutatu eta ilundu gabe.